



# Pila-pilean

2023ko

Soraluzeko hilabetekaria  
2022ko abendua · 393 alea

SORALUZE BIZI 2030



SORALUZEKO UDALA



2023RAKO AURREKONTUA  
**ONARTU DU UDALBATZAK**



# PIL-PILEAN 393

2022ko abendua

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

## Aurkibidea

- |    |  |   |
|----|--|---|
| 4  | <b>Elkarrizketa</b> Sonia Rodriguez, Gurutze Gorria.             | IRITZIA   |
| 6  | <b>Begira</b> SOMERen musika jaialdia.                           | 3 <b>Neuretik</b> Jokin Oregi <i>Zapla!</i>   |
| 8  | <b>Zer berri</b> Aktualitateko albisteak.                        | 14 <b>Gutunak</b> Larraitz Lakuesta de la Fuente + beste hainbat kintokide <i>72ko kintoak.</i> |
| 16 | <b>Erreportajea</b> Udal aurrekontua.                            | 14 <b>Komiki tira</b>   |
| 22 | <b>Kirola</b> Soraluze, Mugituz, Sora eta hockey.                | 15 <b>Hausnarketa</b> Osasun sistema publikoa.  |
| 24 | <b>Kultura</b> Gabonetako kalejirak.                             | 15 <b>Puntua</b> Alana Berraondo <i>Zerbait oso potoloa dago jokoan</i>                         |
| 26 | <b>Zerbitzuak</b> Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... |   |



**Pil-pilean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea**  
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

**Erredakzioa**  
Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

**Publizitatea**  
publizitatea@pilpilean.eus

**Zuzentzailea**  
Miren Gallastegi

**Diseinua**  
Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

**Maketazioa**  
Oier Larreategi

**Inprimategia:**  
Gertu Koop.

**Banaketa:**  
Pil-pilean Ekoizpena

**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

**Babesleak**

**GOKI**  
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko  
UDALA**

# ZAPLA!



JOKIN OREGI

**K**arakate, Atxolin, Irukurutzeta, Krabeliñaitz eta Illordo, ez al dira euskaraz izenak eta izanak mordo? Sagar erreka, Zabaleta, Mendiola, Osuma eta Erlai errekek, neguan blai eta udan herrenka. Ezozi, Txurruka edo eta Irure, ausaz auzo bihurtutako aldapa gune. Arizaga, Goenetxetxo, Armendi, Obe, Lezarri, basoko harri eta herri, Egotza, Zeleta, Azalia, Untzeta, Arritxa, hor ere bai euskarazko hitza.

Eta halere, Irulegiko eskuaren aurkikuntzaren berri eman zutenean, erabat txundituta gu, gertaera sinestezin baten aurrean dagoenaren lerdo aurpegiarekin.

Irulegiko eskuak matraileko ederra eman zidan, ondo merezia, onartu behar dut. Sinistuta nengoen gure arbasoak, garai hartan behintzat, zeharo basatiak zirela. Izan ere, basoiek Carlomagnoaren armadari eraso egin ziotenean harriak besterik ez zituztela baliatu uste nuen; eta gorputza ile beltz kizkurrez beteta zutela; eta aurre historiako arropak zeramatzatela soinean, erdi biluzik zebiltzala gehienak. Eta jakina, ez zirela idazteko edo irakurtzeko gauza. Pentsa, Irulegiko eskuaren eta Ibañetako gertaeren artean zortzi-bederatzi mendeko aldea dago. Zer den ezjakintasuna, gu bai narru gorritan!

Zergatik sinistu dugu euskaldun basatien kontakizuna? Guk geuk elikatutakoa izan da edo kanpotik dator gu gutxiesteko ahalegina? Bigarren aukera sinesgarriagoa iruditzen zait, hipotesi zaleen klubean onartuko banindute.

Muneta, Karakate, Atxolin... Zeinek asmatu zituen izenok? Nork onartu zuen aurrerantzean hala deituko zirela zerrendatutako guztiak? Horren atzean premia bat dago, mundua neurtu eta ulertu behar bat. Eta euskara tresna bat da horretarako, ez bakarria, baina bai baliagarria izan dena mendez mende, milurtekoz milurteko. Mundua ulertzen eta munduari zukua ateratzen.

Izan ere, Irulegiko aurkikuntza liluragarriak beste gauza bat utzi du agerian lerdo aurpegidunontzat: gure arbasoek Soriontasunaren giltza eskura zutela.

## IRULEGIKO ESQUAK MATRAILEKO EDERRA EMAN ZIDAN, ONDO MEREZIA, ONARTU BEHAR DUT

# “Gero eta gehiagok ezin du berogailurik edo gasik ordaindu”

---

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: FERNAN OREGI

---

Azaroaren 18tik, Soraluzen kalteberatasun egoeran dauden pertsonen arreta ematen ari da Elgoibarko Gurutze Gorria, barikuro. Sonia Rodriguez (Elgoibar, 1978) da Elgoibarko Gurutze Gorriko Gizarte arloko arduraduna. 28 urte daramatza Gurutze Gorrian lanean.

## **Zein zerbitzu ematen ditu Gurutze Gorriak Soraluzen?**

Elikagaiak, norbere garbitasunerako produktuak, fardelak, eskola materiala, jostailuak, pobrezia energetikoari aurre egiten laguntzeko aholkularitza, bonuen tramitazioa, mugikortasun arazoak dituztenendako gailuak... Lehen

Elgoibarrera etorri behar izaten zuten soraluzetarrek halakoen bila, orain, barikuro ari gara zerbitzu hori ematen Soraluzen. Elikagaiak eta jostailuak, banatzen 10 urte daramatzagu.

## **Zenbat soraluzetar da zuen zerbitzuen hartzaile?**

Orain 80-90 bat familia.

## **Hori asko ala gutxi da?**

Askok, Elgoibarrekin konparatuta, adibidez, askok gehiago. Soraluzek du Debabarreneko (eta Gipuzkoako) langabezia tasarik altuena, EUSTATen arabera.

## **Zein da gehien erabiltzen den programa?**

Elikagaien programa.

## **Soraluzen salatu izan da janaria edukiontzietan agertu dela.**

Jakiten badugu hori horrela dela, bota duenari laguntza programa kendu egiten zaio eta zigorra ezarri. Argi eta garbi. Gainera, guk elikagaiak banatzean esaten diegu: *ez baduzu janari mota hau nahi, ez eraman*. Bestalde, familia bakoitzaren jarraipena egiten dugu Udalarekin hilero eta haien egoera aldatzen bada, jasotzen duten zerbitzu mota egokitu egiten da. Eta egunero egoten gara kontaktuan Udaleko gizarte zerbitzuekin.

## **Mugikortasun arazoak dituztenendako materiala maileguan ematen duzue, ezta?**

Bai, hiru hilabeterako. Luzaroago behar badu, berriz, sei hilabeterako lagatzen ditugu. Adibidez,

Elgoibarko biltegian bertan ditugu gurpildun aulkiak, makuluak, taka-takak... Ohe artikulatuak, berriz, Gipuzkoako Gurutze Gorriaren Urnietako biltegian ditugu, hara eskatu eta ekarri egiten da.

## **Zein profil dute zuen zerbitzuen erabiltzaileak?**

Denetik dago. Baina etortzen direnak, normalean, ume txikiak dituzten familiak dira, hemengoak zein kanpotik etorritakoak, biak kopuruz antzera. Guraso bakarreko familia asko ere badaude, eta, normalean, 40 urte ingurukoak dira. Baina gure programak edozein adinetarako dira.

## **Zelako egoerak bizi dituzte zuen zerbitzuak eskuratzen dituzten Soraluzeko familiek?**

Batzuk ez dute diru-sarrerarik eta beste batzuk diru-sarrera oso txikiak. Adibidez, gero eta familia gehiagok ezin du berogailurik edo gasik ordaindu.

## **Zeinek eska ditzakete zuen zerbitzuak?**

Soraluzeko Udaleko Gizarte zerbitzuek erabakitzen dute hori, familien ezaugarri sozio-ekonomikoen arabera. Udal teknikariek elkarrizketak egiten dituzte familiekin eta haien egoeren arabera esaten digute guri zein zerbitzu eman behar diogun familia bakoitzari.

## **Uste duzu badaudela zuen zerbitzuak eskatzeko eskubidea izan arren eskatzen ez duenik?**

Bai, akaso jakin ere ez dakite. Zentzu horretan, berritoki ere hasiko gara hitzaldiak ematen informazio hori helarazteko, pandemiarekin laga egin genion hitzaldiak emateari.

## **Non ematen duzue Soraluzekoa moduko zerbitzua?**

Gu gaude Elgoibarren eta Soraluzen. Baina Gipuzkoako herri guztietan eskaintzen du zerbitzua Gurutze Gorriak.

## **Egoera okertu egin dela esango zenuke?**

Bai, pandemiatik hona eskatzaile gehiago dator. Lehen 60 bat familia etortzen ziren, aurten, normalagoa da 80 familia etortzea astero. Nabaritzen ari gara, adibidez, gero eta langile gehiago datorrela laguntza eske, oso soldata txikiak kobratzen dituzte eta eta ez zaie ailegatzen alokairua, hipoteka, argia... dena ordaintzeko.





## Helburuak gauzatzen

**ARGAZKIA:** JUAN FERNANDEZ

**TESTUA:** SOME

Plaentxian garen muskarixak elkartzu jaialdi ederra antolatu genduan azaruaren 26xan Gaztetxian. Jai giro ederraz eta danetariko musikaz gozatu ahal izan genduan. Herriko hainbat belaunalditako muskarixok hainbat belaunalditako musika plazaratu genduan. Akustikuak, rocka, rapa, elektronika... gustu askorentzako menua. Lehenengo helburua beteta. SOME (Soraluzeko Muskarieren Elkarte) ofizialki sortzeko bidian pausu haundi bat emon dogu, tramite guztiak ordaindu ahal izateko dirua lortu baita. Bigarren helburua beteta. Zailtasunak gainditu behar izan dittugu, antolatzeko denpora gutxi, nahi baino jende gutxiago antolakuntzan eta, batez be, musika jotzeko Soraluzek daukan azpiegitura falta nabarmena. Hala ere, kriston jaialdixa aurrera eramateko gai izan garala erakutsi genduan. Lokalen helburua airean...





Eguneko Zentroko langileak.

# "Luxu bat da zerbitzua"

Eguneko Zentroak ibilbide berria hasi du udazkenean. Ia sei urtez Aita Mennik kudeatzen jardun ondoren, urriaz geroztik, Mesedeetako Ama egoitzak kudeatzen du herriko zerbitzu hori

Eguneko Zentroko langileak indarberrituta daude zerbitzuaren kudeatzaile berriarekin: "Herriko errealitatea ezagutzeak asko laguntzen du, egunerokotasunean, ekintzak planteatzerako... Askatasuna ematen du, herriarekiko gertutasuna, baita langileendako motibazioa. Denok batera, zerbitzu hau eta nagusiendako dauden edo egongo diren herriko bestelako zerbitzuak bultzatu nahi ditugu", diote.

### Onura handiak

Gaur egun, 8 langilek dihardute Eguneko Zentroan: hiru erizain laguntzailek, garbitzaileak, erizainak, gizarte langileak, psikologoak eta koordinatzaileak.

"Egunerokotasunean behar diren" zerbitzuak eta pertsonaren autonomiari laguntzen diotenak eskaintzen dizkiete erabiltzaileei, labur esanda, jatorduak eta ekintzak. "Asistentziala ez den zerbitzuak onura handia ematen die: estimulazioa lantzen da, autonomia, sozializatzeak aukera, norbere gaitasunak hobetu egiten dira... Bestela, sarri, pertsona horiek etxean daude egun osoan, gehienetan bakarrik, eta, etxeetan, normalean, zaintza lana egiten da. Eguneko Zentroan, berriz, ekintzak egiten dituzte, taldekoak zein indibidualak, norbere beharren arabera, eta, horiei esker, garapen pertsonala lantzen da eta hori igarri egiten

da pertsonengan. Adibidez, egunkaria irakurtzen dugu egunero, musikarekin lotutako ekintzak egiten ditugu astero, bingoa, gimnasia, paseoak, kalera irten, sukaldaritza tailerrak, antzinako oroitzapenak landu... Luxu bat da zerbitzua. Nagusi asko daude herrian eta luxu bat da aukera izatea herrian bertan halako zerbitzu bat izateko. Langileak bertakoak dira, eraikina berria da, etxe aurrean geratu eta bertaraino datorren autobus zerbitzua dute...".

Gaur gaurkoz, 10 erabiltzaile ditu Eguneko Zentroak, nahiz eta 17 pertsonarendako lekua izan. "Hasierako urteetan kosta egin zen betetzea, kanpotik ere etortzen zen jendea, Eibartik, adibidez, baina bigarren urterako bete egin ziren 17 lekuak, itxaron zerrenda eta guzti izan zen. Baina pandemia izan zenetik, 10-12 bat lagun etortzen dira", esplikatu dute.

Eguneko Zentroa 65 urtetik gorako pertsoneri dago zuzenduta. Edozein izan daiteke zerbitzuaren erabiltzaile, beti ere, eguneroko ekintzak egiteko gutxieneko baldintzak betetzen baldin baditu (bakarrik jan, komunera joan...). Bestela esanda, erabateko mendekotasuna izan barik, baina aldi berean, mendekotasun puntu bat duten nagusiak dira erabiltzaile potentzialak, besteak beste, "etxez etxeko zerbitzua jasotzen duten gehienak".

**ASISTENTZIALA EZ DEN ZERBITZUAK ONURA HANDIA EMATEN DIE PERTSONA NAGUSIEI**



# Pedro Larrañaga Jakiundeko kide

Azaroan izendatu zuten zientzialari soraluzetarra Jakiundeko, Zientzia, Arte eta Letren Akademiako jakitun urgazle; "oso pozik" dagoela dio

Adimen Artifizialean eta Konputazio Zientzietan katedradun den Pedro Larrañaga, Academia Europaea prestigiotsuaren kide izateaz gainera, orain, Jakiunde Akademiako jakitun urgazle ere bada. Soraluzetarra benetan dago pozik izendapen berriarekin, "Academia Europaea-k maila altua izango du, baina ez da gauza bera. Hau barruraino sartzen da. Oso zaila da norbere etxean profeta izatea", dio.

Jakiundeko oraingo presidente Juan Inazio Perez Iglesiasek eman zion izendapenaren berri Larrañagari. Azken horrek, bere aldetik, Jakiunden sartzek eskatzen duen konpromisoa berretsi eta garatuko dituen proiektuen berri eman zuen.



Pedro Larrañaga.

"Bi asmo ditut. Bata da Institutuetan-eta hitzaldi dibulгатiboak ematea, urtero 6-8 bat aldiz. Asmoa da lehendabizikoa Soraluzeko Institutuan ematea. Aurrera

begira, liburuxka txiki batean hitzaldi horien esperientzia jasotzea ere gustatuko litzaidake. Bigarren asmoa, berriz, da enpresetan adimen artifiziala nola erabili aztertzeo lanketa egiten segitzea, INZU taldearekin ari gara elkarlanean", jakinarazi du. Larrañagak gaineratu duenez, zentzu horretan, BAIC (Basque, Artificial Intelligence Center) sortu zenean orain dela hiruzpalau urte, Eusko Jaurlaritza jarri zen berarekin harremanetan, zientzialari soraluzetarrak dituen asmoen berri jakiteko.

## Ezagunak

Ezustekorik ezean, Pedro Larrañagak 2023ko udaberrian hartuko du Jakiundeko jakitun urgazle kargua. Ez zaio arrotz egingo Zientzia, Arte eta Letren Akademia. Bertako jakitun asko ditu ezagun, "batez ere EHUn egon nintzenekoak: Jose Luis de la Cuesta, Paco Etxeberria, Jose Maria Asua, Marti Masso, Ana Zubiaga, Jesus Ugalde...", eta azkenengo urteetan ezagutu dituenak, "Maria Jesus Esteban eta Humberto Bustince".

## Urriaren 7an Bilbora joateko deia egin du Soraluzeko Sarek

Urte bukaeran zein urte berriaren hasieran egingo diren hainbat mobilizaziotan parte hartzeko deia egin du Soraluzeko Sarek.

Batetik, jakinarazi du abenduko azken barikuan barik, aurtan, azken zapatuan egingo dutela euskal presoan aldeko urteko azken elkarretaratzea, "abenduaren

31 egun bereziagoa da", esplikatu dute. Hitzordua 19:30ean ipini dute, Plaza Berrian.

Bestetik, iragarri dute, egun berean, baina goizez, Gipuzkoa mailako manifestazioa egingo dutela 11:00etan Martuteneko espexetik abiatuta.

## Manifestazioa Bilbon

Azkenik, Soraluzeko Sarek gogora ekarri du, bi urteko geldialdiaren ondoren, aurtan Sare Herritarrak atzera ere antolatu duela Bilbon urte hasierako manifestazio entzutetsua. Urtarrilaren 7an izango da, *Etxera bidea gertu lelopean*. Soraluzeko Sarek jakinarazi du bi autobus antolatuko dituztela bertara joateko, bata goizean eta bestea arratsaldean. Izen-ematea zabalik dago Arrano eta Bolia tabernetan.



Belarriprest eta Ahobizien Topaketa.

# Ariketak arrastoa laga du

Soraluzeko Batzordeak Euskaraldian aldaketaren bat bizi izan duten herritarren eta entitateen testigantzak jaso ditu.

Abenduaren 2an amaitu zen hizkuntza ariketa eta Soraluzeko Batzordeak jakinarazi duenez, azkenean 508 plazentziatar eta 56 entitate izan dira Euskaraldian parte hartu dutenak. Hala, Arianne Unamuno dinamizatzailearen esanetan, egunotan jaso dituzten testigantzek baieztatzen dute hirugarren edizioak ere "arrastoa" laga duela hainbat herritar eta entitatetan: "Euskaraldiak aldaketa txikiz betetako arrastoa laga du, txapak neguko beroki preziatuan bezala, gogoetek eta bizipenek bere lekua hartu dute gure memorian, ohituretan, emozioetan eta azaletan. Ez da lehen edizioko eztanda eta lilurarik sortu, ohiturak

aldatzea progresiboa delako, baina aurreko edizioetan egindako bideari segida sakonagoa eman dio askok, hizkuntza-ohituretan benetako aldaketak eginez".

## Familian, medikuarenean, lagun artean...

Abenduaren 3an, Belarriprest eta Ahobizien Topaketa egin zuten eta bertan batu ziren herritarrek hainbat testigantza eman zituzten. Herritar batek ariketak familiaren hizkuntza-ohiturei lotutako testigantza eman zuen: "Senarra Belarriprest izan da eta alabak erderarako joera geroz eta handiagoa du. Gogor egin diet eta lortu dut euskaraz egin dezagun. Orain, horri eustea dut erronka". Hala,

medikuarenean izandako gertaera kontatu zuen beste batek: "Medikuarenera joan ginen ama eta biok, eta erdaraz hasitako elkarrizketa euskarara ekarri genuen". Lagun arteko beste batek: "Lagun artean erdaraz egiten dugu gehiago eta Euskaraldian, denei esan nien euskaraz egin nahi nuela haiekin. Denok saiatu ginen eta lortu genuen. Ez dena, noski." Eta ezezagunekin gertatua ere kontatu du beste batek: "Bilbora joan eta autobusean beste txapadun batekin elkartu eta euskaraz hasi ginen. Aldamenekoak ere, irten behar zuela eta, euskaraz eskatu zidan lekua uzteko."

Orohar, herritarrek azaldu zuten Euskaraldiak balio izan diela, "hizkuntzaren gaia mahai gainean jartzeko" edota norbere hizkuntza portaerez "ohartzeko".

Entitateen kasuan, azpimarratzekoa da ariketan parte hartu duen Somabe enpresak euskara plana martxan jartzeko asmoa adierazi duela eta elkarteetan artean, Errugby taldeak jakinarazi du ariketak balio izan diola juntakideen artean hizkuntzaren gaiaz esplizituki berba egiteko eta ondoren "txapa jantzita entrenamenduetako erabileran puntu bat gora egiteko ere bai". Datozen egunetan, Batzordeak testigantzak biltzen jarraituko du.

**"AURREKO EDIZIOETAN  
HASITAKO BIDEARI  
JARRAIPEN  
SAKONAGOA EMAN DIO  
ASKOK"**

**ANDER GOMEZ** BELARRIPREST

"Santurtziko denda batean euskaraz hasi eta lortu nuen elkarrizketa osoa elebiduna izatea".

**ENEKOITZ IGARTUA** AHOBIZI

"Errugby taldean serio hartu dugu ariketa eta puntu bat gora egin dugu jarreran eta erabileran".

**ELENE ALBERDI** AHOBIZI

"Lanean lortu dut euskarari eustea eta hainbatekin elkarrizketa elebidunak izatea".

**JONE ALBERDI** BELARRIPREST


"Uste dut euskaraz egiteko kontzientzia piztu dudala etxean eta lanean".

## Berdintasunaren bitartez *ekiditen dugu desberdintasuna.*

Desberdintasun gutxien dituen Europako lurraldeen artean jarraitu nahi dugu, horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundia babestutako lanaren eta ekonomia sozialaren eredu propioa lantzen ari da, Etorbizuna Eraikiz ekimenaren bidez.

Gizarte politikak kudeatzeko modu berezia dugu. Eredu propio bat, gizarte eragileekin eta irabazi asmorik gabeko erakundeekin sinatutako hitzarmen eta akordioen bidez, gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsoneri laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak eskaintzeko lan egiten dugu.

PAULA ESTEVEZ



## Etorbizuna Orain.

[etorkizunacraikiz.eus](http://etorkizunacraikiz.eus)

Gipuzkoako  
Foru Aldundia



ETORKIZUNA  
ORAIN



Bizikaleko kideak eta udal ordezkaria argiak pizteko ekitaldian.

## Komertzio txikiaren alde

Bizikalek eskerrak eman zizkien hurreratu ziren herritarrei eta dei egin zien Gabonetan ere komertzio txikietan eros dezaten.

Herritar asko hurreratu zen joan zen barikuan Bizikalek karpan antolatu zuen azoka zela-eta, erosketaren bat egin, kaleko argiak piztu zituzten momentua ikusi, txokolate beroa probatu edota zozketatu zituzten bonoen banaketa

ekitaldian emozioa eta poza elkarbanatzera. Gogotik jo zieten txalo Esther Iñurrietari, Eider Ariznabarretari, Irea Rasconi, Amaia Orkaiztegi eta Bittori Rasconi zozketan 30 euroko bonoak jaso zituztenez.



Amaia Orkaiztegi bonoa jasotzen.



Eider Ariznabarreta bonoa eskutan.

## Teilatua berritzeko lanak

Joan zen astean hasi ziren udaletxearen teilatua berritzeko lanak eta hilabeteen amaituta izatea espero dute. Lanak Fernando Petralanda eraiketak, S.L enpresak burutuko ditu eta Soraluzeko Udalak 39.860 euroko inbertsioa egingo du bertan (Bez-a aparte). Teilak aldatzeaz gain, tenperatura erregulatzeko materialak baliatuko dituzte.



Teilatua berritzeko lanak.

## Iker Aldazabal EAJren alkategai

Soraluzeko Uri Buru Batzarrak aho batez erabaki du 2023ko udal hauteskundeetarako Soraluzeko alkategaia Iker Aldazabal Basauri izango dela. Abenduaren 5ean, astelehena, egin zuten afiliatu jeltzaleek hori erabakitzeke asanblada. Aldazabalek 45 urte ditu eta 19 urtez dihardu Soraluzeko Udaleko politikagintzan.

# Presen auzia pil-pilean

EH Bilduk bide-orria proposatu du URAk agentziaren agerraldia proposatzuz eta Gure Deba Ibaia taldeak hiru hitzaldi eskaini ditu.

EH Bilduk, bere aldetik, gaiari “dagokion transzendentziaz” heltzeko eskatu dio udal-gobernuari eta bide-orri bat proposatu du, ohararaziz dagoeneko URA Agentziak ezarrita dituela presak ukitzeko zenbait baldintza 2017ko Hirigintza Plan Orokorrean jasota daudenak “Olaldea eta SAPAko inguruetan eraldaketa proiektuak planteatu ahal izateko”. Hala, EH Bilduren ustez, URAk agentziak herrira etorri eta “argitu” behar luke zergatik izendatzen duen “uholde arriskuko gunee”.

## Erreferendum eskaera

Gure Deba Ibaia taldeak, berriz, bere ikuspegia azaltzeko hiru hitzaldi eskaini ditu eta Udalari eskatu dio “lehenbailehen presen apurketen kontra



GDI taldearen hitzaldia Tolarekuan.

agertzeko” eta erreferenduma deitzeko, “herriak erabaki dezan”.

## Udal gobernu “sukalde lanean”

Udal gobernuak eguazteneko udalbatzan adierazi zuenez “sukalde lanean” dihardu, “faktore guztien inguruko datuak ezagutu asmoz”.

## Ponentziarako proposamenak

Abenduaren 5ean, Debabarreneko EH Bilduk Debabarrena Suspertzeko Ponentziarako prestatu dituen ardatz eta proiektu proposamenak aurkeztu zituen Eibarren. Besteren artean, koalizio abertzaleak proposatu du Industria 4.0 zentro bat sortzea, bailarako enpresei zerbitzua eskaintzeko. Mugikortasun arloan, berriz, bailaran garraio publikoa indartzera bideratutako proiektu sorta anbiziotsua mahaigaineratu du: Ermua-Deba tranbia zerbitzuaren maiztasuna 10-15 minutukoa izatea, Maltzagan eta Eibarren gunee intermodalak eraikitzea eta eskualdeko bidegorri sarea bukatzea (Deba-Elgoibar, Soraluze-Maltzaga eta Ermua-Eibar). Horrez gain, Auzoguneen eraberritzea, laneritzea, zaintza, arrantza eta nekazaritza arloko proiektuak ere proposatu ditu. Legebiltzarreko ponentzia osatze bidean da.

## "Osakidetza defenda dezagun"

Sindikatuak deituta, eguenean, ambulatorioko langileek elkarretaratzea egin zuten *Osakidetza defenda dezagun* lelopean, hainbat herritar ondoan zitu zela. Sindikatuak salatu dutenez Osakidetza ez du negoziatu nahi eta horren aurrean mobilizatzerara deitu dituzte lehen arretako zentroetako langileak.



### GUTUNAK

#### 72ko kintoak eta adimen-desgaitasuna?

##### LARRAITZ LAKUESTA DE LA FUENTE (+ BESTE HAINBAT KINTOKIDE)

Harriduraz eta minez hasi naiz lerro hauek idazten, izan ere, niri eta gutun hau sinatzen duten beste hainbat lagunei, iraingarria iruditu zaigu guri buruz azaroko aldizkarian argitaratu zen gutuna. "Sentsibiltate falta" eta "utzikeria"? Gai honen inguruan zenbait kontu argitu nahi genituzke.

40 urte bete genituenean (2012an), lan berezia hartu genuen antolaketan edo behintzat saiatu ginen banan-banan denenganaino heltzen. Bakoitzari idatzi bat bidali edota eskura eman genion, kartelak... Neronek entregatu nizkien eskura aurreko aleko gutuna sinatu zuten gurasoei

eta baita desgaitasuna duen beste pertsona baten etxekoei ere. Orduko hartan, euren eskerrona adierazi zidaten, baina familia batek zein besteak jakinarazi zidaten ez zutela posible ikusten hauek bertaratzea.

Aurten, hamar urte geroago eta beste inork antolatzen ez zuela ikusita, animatu ginen, gure "utzikeriaren" gainetik, 72koen kinto bazkaria antolatzera. Berdinok antolatu genuen, baina erabaki genuen ez genuela hartuko lehen aldi hartan hartutako lanik eta ondorioz, ez genuen idatzi gonbidapen pertsonalik, eta kalean kartelak ipini eta plaentxia.eus-en berria plazaratu besterik ez genuen egin.

Hortaz, ez dugu ulertzen zertara datorren gutun hau. Gainera, nire harridura are

handiagoa izan da 72ko kintoak lagun batek jakinarazi didanean berak jakinarazi ziola gurasoetako bati antolatzailleetako bat ni nintzela eta hala ere, halako izenburudun (neurrigabea guretzat) idatzi bat plazaratu dutenean, ezer galdetu eta esan gabe.

Pena handia da askok hartu duguna. Epaituak desgaitasunarekiko... Gai eta berba potoloegiak dira gauzak era horretan egiteko.

Gutariko batzuk egunero lan egiten dugu eta bizi gara desgaitasuna duten pertsonekin eta maite ditugu. Ausartuko naiz esaten (eta gauza jakina dela uste dut), guraso hauen semea asko maite dudala. Betidanik!

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

### KOMIKI TIRA



## HAUSNARKETA

**Osasun sistema publikoa**

Azken hilabeteotan, hainbat eragilek ohartarazi dute osasun arreta okerrera doala Osakidetzan.



**INMACULADA IZURIETA**  
ERIZAINA

"Desmantelazioak eta kontsultorio txikiak isten joateak kezkatzen gaitu. Beldur gara garai bat iritsiko ote den non ez den izango lanari erantzuteko langilerik eta anbulatorio txikiak itxi egin beharko diren. Estres maila handiarekin dihardugu".



**JULIAN VICIOSA**  
PAZIENTEA

"Ni oso ondo atenditu naute beti. Protesia ipini didate, koloneko ebakuntza egin... Eta dena ondo joan da. Nik ez daukat inongo kezarrik. Sei hilabete behin etortzen naiz errebisioa egitera eta beti ondo".



**NAGORE RUIZ**  
FAMILIA-MEDIKUA

"Egoera bereziki larria da Lehen Arretan, sistemaren bizkarrezurrean. Urteetan zehar egindako kudeaketa txarrak eta aurreikuspen ezak ekarri gaitu egoera honetara. Denbora eta baliabide asko beharko da egoera iraultzeko, eta horretan egin beharko dugu indarra".



**IKER LAZPITA**  
GURASOA

"Gure esperientzia grisa da. Urtarrilean, umea jaio zenean, ez zegoen pediatrarik eta erizainak ebaluatu zuen. Orditik hiru pediatra izan dira, orain bat finkatu den arte. Donostiara ere joan behar izan dugu eta han urte eta erdira eman digute txanda".

## PUNTUA



**ALANA BERRAONDO**

**Zerbait oso potoloa dago jokoan**

"Ordua zen bikote, zorionak!" Harrigarria. Itxura denez, denak nire zain egon dira denbora luzean, eta luzeegia irudituz zaie antza, denbora hori sufritu izan balute moduan. Hortaz gain, galdera arraro bat bota du arrandegikoak;

*Eta, zer izango da, neska ala mutila?* Ez du jakin nahi izan dena ongi dagoen, ea zoriontsu gauden, edota haurdunaldia zelan doan, neska ala mutila izango naizen galdetzen digu. Eta ama urduri jarri dela nabaritu dut. Pausa bat egon da, eta ilaran dauden gainontzekoak ere jiratu dira. Juizio bateko epaileak eman behar duen azken hitza balitz bezala, denak erantzunari adi, isil-isilik zain. Ostras! Honek garrantzitsua izan behar du, badirudi zerbait oso potoloa dagoela jokoan. Ez dut oso ongi ulertzen galderak sortu duen jakin-mina, baina esango nuke, momentu horretan, erantzunaren truke batek baino gehiagok utziko zigula erosten geratzen den azken almeja dozena; *"Oraindik ez dakigu, hori berak kontatuko digu"* bota du amak eta bat batean, arrandegikoa aho zabalik, ilaran dagoen baten aurpegia guztiz deskolokatua, eta gainontzekoak, berriro ere jiratu dira erantzun horren ondorioz elkarrizketa horrek interesa galdu edota deseroso sentiarazi izan balitu bezala. Harrigarria ezta?





Ordezkaritza politikoa urteko azkeneko osoko bilkuran.

# 4.976.000 euroko aurrekontua 2023rako

2023. urteari begira, Sorluzeko Udalak 4.976.000 euroko aurrekontua izango du. 2022ko aurrekontuarekin alderatuta, %11,13 txikiagoa da; kopurutan begiratuta, 623.504 euro gutxiago. Aurrekontu proiektua EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin onartu zen. Testua: **Ubane Madera**. Argazkiak: **Fernan Oregi**. Infografia: **Oier Larreategi**.



**E**guaztenean, abenduaren 21ean onartu zuen udalbatzarrak aurtengo aurrekontu-proiektua, urteko azken osoko bilkuran. Udal Gobernuaren (EAJ eta PSE-EE) aldeko botoekin eta oposizioaren (EH Bildu) abstentzioarekin onartu zen proposatutakoa. Horren arabera, Soraluzeko Udalak 4.976.000 euro izango ditu 2023rako, iaz baino 623.504 euro gutxiago.

Soraluzeko Udaletik esplikaturakoaren arabera, kopuru jaitsiera horren arrazoiak bi dira. Batetik, 2022an, Udalak 500.000 euroko mailegua eskatu zuela inbertsioetarako eta, bestetik, 385.680 euroko dirulaguntza jaso zuela Kalebarrengo proiekturako.

Horrela ikusita, berez, 885.680 euroko jaitsiera beharko luke aurrekontuak 2023an, baina diruzainak esplikaturakoaren arabera, diru sarrerak handitu egin dira bi arlotan. Batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Funtsetik aurreikusitakoa baino 191.876 euro gehiago eskuratu ziren eta, bestetik, zergen igoeratik ere diru gehiago jaso du. Hori horrela, 2022ko eta 2023ko aurrekontuen aldea 623.504 eurokoa da.

**Diru-sarrerak**

Aurrekontuaren xehetasunei dagokienez, diru-sarrerei begiratuta, Soraluzeko Udalaren diru-sarrerarik handiena Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Funtsa da, sarrera guztien %68,33a. Herritarrengandik, berriz, diru-sarreren %27,32a eskuratzen du, %3,11 enpresengandik eta gainerako %0,89a Sologoeneko zentraletik.


Sarrera guztien banaketa islatzen duen tarta ondoko zutabeen dago ikusgai. Halaber, sarrera horien baitan, Udalak herritarrengandik jasotzen duen %27,32ko sarrerak zelan dauden banatuta erakusten duen taula ere ikusgai dago zutabearen beheko partean. Adibidez, bertan ikus daitekeenez, Udalak diru gehien herritarren kontribuzioetatik eskuratzen du, nahiz eta haien bitartez jasotzen den diru kopurua oso baxua izan Soraluzeren pareko herriein konparatuz gero, batik bat, etxebizitzaren balioak baxuagoak direlako.

**Udalaren gastuak**

Udalaren gastuei erreparatuta, berriz, kopururik altuena funtzionamendu orokorrera bideratuta dago: kale garbiketa, mantenua, zabor bilketa, argia, gasa, eraikinen garbiketa zerbitzuak, kirol zerbitzua, gazteendako zerbitzuak eta antolatzen


**Sarrerak**

ITURRIA: SORALUZeko UDALA



- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Funtsetik erakundeak %68,33
- Herritarren %27,32
- Enpresak %3,11
- Sologoen %0,89
- Errentak %0,15
- Inbertsioetarako laguntzak %0,2


**Herritarrengatik jasotako %27,32aren desglosea**



- Kontribuzioak %36,57
- Zabor tasa %32,37
- Eraikuntza zerga %1,47
- Ibilgailu zergak %17,07
- Kirol tasak %7,36
- Kanposantuak, bide okupazioa, e.a. %2,27
- Etxe zergak %1,1
- Isunak %0,66
- Kultur tasak %0,51
- Badoak %0,48
- Plusbalioak %0,15

## Gastuak

ITURRIA: SORALUZeko UDALA



diren ekintza kulturaletara eta abarretara. Gastu totalaren %52,56a da hori.

Bigarren gasturik handiena, berriz, udal langileekin lotutakoa da, gastu osoaren %31,9a. Ondoren, Udalak elkarteei ematen dizkien dirulaguntzak eta zinegotziekin lotutako gastuak datoz: %10,21. Azkenik, mailegu gastuek (%2,78) eta inbertsioek (%2,55) osatzen dute gastuen ehuneko ehuna.

### Zaborrak eta administrazioa

Gastuak arloka begiratu, berriz, gastu gehien eragiten duten zerbitzuak zaborrak, administrazio orokorra, kirola, gizarte zerbitzuak eta brigada dira. Gastu gutxien dutenak, berriz, nekazaritzarekin, euskararekin eta talde politikoekin lotutakoak. Gastuei dagozkien xehetasunak ikusgai daude ondoko tartan.

Bestalde, Soraluzeren ezaugarri antzerakoak dituen hiru herriren gastuekin konparazioa egin du Soraluzeko Udal Gobernuak. "Joera dugu gure herria Eibarko edo Arrasateko moduko udalekin konparatzeko, baina Soraluze 4.000 bizilagunetara ez da iristen eta maila horretako herriein konparatzen badugu, nabarmentzekoa da pertsonal gastuak txikiagoak izatea herrian dugun udaltzain

### Antzerako tamainadun herriein gastuen konparaketa

	Herria 1	Herria 2	Herria 3	Soraluze	Bataz bestekoa
<b>Biztanleak</b>	3.711	4.065	4.199	3.883	
<b>Gastua</b>	6,543	7,281	5,620	6,324	6,442
<b>Pertsonal gastuak</b>	1,775	1,723	1,640	1,394	1,633
<b>Mantenu gastuak</b>	1,419	2,884	1,651	2,086	2,005
<b>Maileguak</b>	3	0	0	5	2

GASTUEN DATUAK: 2019ko gastuak, milioi tan

ITURRIA: SORALUZeko UDALA

#### Herri bakoitzaren zerbitzuak:

- 1. Herria:** kiroldegia bai, igerilekua ez, 2 udaltzain.
  - 2. Herria:** kiroldegia bai, igerilekua bai, 2 udaltzain.
  - 3. Herria:** kiroldegia bai, igerilekua ez, udaltzain 1.
- Soraluze:** kiroldegia bai, igerilekua bai, 4 udaltzain.

zerbitzu zabalagoa izan arren, eta, kontuan hartuta udal langileen soldata maila beste herrietako udal langileen parekoa dela, Administrazio orokorrean pertsonal gutxiago dagoenaren erakusle da hori". (Herrien arteko taula konparatiboa ondoko zutabean).

#### Ur-txorroak, aldagelak, Itxaropena...

Bestalde, udal aurrekontu baten arlorik esanguratsuenetako bat inbertsioekin lotutakoa izaten da.

2023ko udal aurrekontuaren kasuan, Soraluzeko Udalak 125.500 euro aurreikusi ditu inbertsioetara bideratzeko eta zerrendatu ditu lehentasunak.

Zerrendatutako inbertsioetako batzuk aipatze aldera, lehen seiak honako hauek dira: Etxaburuetako ur txorroen parkea; Kalebarren 24ko eraikina eraitsi (Udalak bereganatu ondoren); kiroldegiko beheko solairuko aldagelak berritu (boxeo-glea ondokoak); skate gunea eta padel pista estali; asfalto lanak egin; Itxaropenak tabernatik terrazarako irisgarritasuna bermatzeko obrak eta Gabolatsen egingo den zubi berrirako. Dena den, zerrenda osoa ikusgai dago ondoko orriko taulan.



Patricia Borinaga (PSE-EE) eta Iker Aldazabal (EAJ) Udal Gobernuako kideak.

**Sei alde, bost abstentzio**

2023rako udal aurrekontua, eguaztenean, abenduaren 21ean onartu zuen udalbatzarrak osoko bilkura bitartez. Udal aurrekontu proiektuaren alde bozkatu zuen Udal Gobernuaren osatzen duten EAJren eta PSE-EEren aldeko 6 botoekin eta oposizioiko EH Bilduren zinegotzien 5 abstentzioekin.

**Herritarrengandik diru gutxi**

Aurrekontu-proiektuaren defentsa egitean, Udal Gobernuak herriaren errealitate sozioekonomikoaren ondorioetan (herritik eta herritarrengandik oso diru-sarrera txikiak jasotzen ditu Udalak) eta Udal Gobernuak dirulaguntzak lortzeko erakutsi duen gaitasunean jarri du iparra. "Kontziente gara 125.500 euroko inbertsioetarako partidarekin ezin direla gauzatu ondoan zerrendatutako inbertsioak. Baina, aurreko urteetan bezala, 2022. urteko likidazioaren berri dugunean martxoan, zenbateko horrekin aktibatuko ditugu aurreikusitako inbertsio horiek".

**11,5 milioi euro Soraluzerendako**

Gaineratutakoaren arabera, "Udal Gobernu honek daukan kudeaketa gaitasuna medio", azken hiruzpalau urteotan, inbertsioetarako hainbat dirulaguntza lortu direla nabarmendu dute Udal Gobernutik, batik bat Eusko Jaurlaritzarengandik eta Aldundiarengandik. "Guztira, 11,5 milioi euro Soraluzerako. Horiei esker, Ezozibidea berrituko da, Pascual Churrucan alokairu sozialeko 29 etxebizitza egingo dira (urtarrilean hasiko dira kutsadura garbitzeko zein lantegia eraisteko lanak), SAParen lehen eraikina birgaituko da, Debabarreneko lantegi eskola sortuko da Olaldeko pabiloian Aldundiak onartu duen dirulaguntzari esker (ElkarEkin 2022 Debabarrena izena du proiektuak), eta, besteak beste, langabezia dauden pertsonendako formazioa ahalbidetuko da eta, era berean, formazioa jaso duten pertsona horietako askok Ezozibideko berrikuntzetan hainbat lan egingo dituzte. Bestalde,

**Inbertsio nagusiak**

- Etxaburuetako ur txorroen parkea.
- Eraisketa lanak (Kalebarren 24).
- Kiroldegiko aldagela berriak eta Skate gunea eta padel pistaren estalpea.
- Asfaltado lanak.
- Itxaropena: Irisgarritasun proiektua.
- Gabolatseko zubi berria.
- Debabarreneko ponentzia.
- Argiteria instalazioak
- Hirigintzako Lanen idazketa.
- Eguzki panelak
- Gaztelekuko mobiliarioa
- Musika eskolako inbertsioak
- Haurreskolako inbertsioak
- Kultur inbertsioak
- Lur sailen erosketak
- Bizikidetzako proiektua
- Gizarte ongizateko inbertsioak
- Nekazaritzako inbertsioak

ITURRIA: SORALUZeko UDALA

## Azken agintaldian lortutako dirulaguntza garrantzitsuenak

Ezozibidea berritzen 2022-2025 (Eusko Jaurlaritzza)	5.841.000€
Enplegagarritasun laguntza. Debabarrena berritzen. Gai ordenaren 12. puntuari jasotzen den hitzarmena (Eusko Jaurlaritzza)	484.913€
Elkar-Ekin 2022. Debabarrena. Lantegi eskola martxan jartzeko (Debabarrena)	593.397€
SAPA Birgaitzeko (Aldundia)	700.000€
Kalebarren 8ko lokala egokitzeko (Aldundia)	341.000€
Pascual Churrucan alokairu sozialeko 29 etxebizitza egiteko (Eusko Jaurlaritzza)	3.500.000€
2.250 zuhaitz landatzeko (Aldundia)	47.000€
Debabarreneko ponentzia	
Gabolatseko zubi berria	
<b>Guztira</b>	<b>11.507.310€</b>

ITURRIA: SORALUZeko UDALA

2.250 zuhaitz landatzeko 47.000 euroko laguntza bideratu dute eta ez da ahaztu behar Debabarreneko ponentzia, hortik ere iritsiko da dirua herrirako zein bailararako eta Gabolatseko zubia zaharberritzeko ere etorriko da dirua.

Horrez aparte, azpimarratzekoa da, baita ere, Udalak gastuetarako diru asko izan ez arren, urtetik urtera handitu egin duela duen aurrezki gaitasuna eta aldi berean, txikitu egin dugula Udalak duen zorra".

### "Egiturazko" arazoa

Oposizioako koalizio EHBilduk, berriz, oso bestelako irakurketa egin du. Lehenengo eta behin, Unai Larreategi bozeramaleak azpimarratu du iaz,

aurrekontuaren gaia landu zutenean egindako irakurketa berbera errepikatzen dela aurrean, "ohiko gastuak inkorporatuta apenas gelditzen da dirurik inbertsioetarako". Oposizioaren ustez, zentzu horretan "egiturazko" arazoa du Udalak, "inertzia hutsez konponduko" ez dena. "EHBildun argi daukagu dugu urtebete barru izango diren udal hauteskundearen ostean egingo dugun lehen lana horixe izango dala. Soraluze dituen beharren, lehentasunen arabera errekurtsioen goitik beherako berrantolaketa bat".

Unai Larreategi EH Bilduko bozeramalea eta Ana Maiztegi eta Maite Quintanilla EH Bilduko zinegotziak.



### "Pobretze dinamika"

Ildo beretik, Udal Gobernuaren kudeaketa ekonomikoa zalantzan jarri du esanez, besteak beste, egoera "irauli" beharra dagoela: "Fondo foraletik jasotzen denaren geroz eta dependienteagoak gara: 2015ean diru-sarreren %58,2a ziren fondo foraletik zetoztenak eta aurtengoan %64,8a dira. Beraz, geroz eta kapazitate gutxiago daukagu herri moduan beharrezko errekurtsioak generatzeko, kanpo subentzioen menpekoagoak bihurtzen ari gara. Etenik ez duen pobretze dinamika baten sartuta gaude alegia. Ez da erraza izango baina

EHBilduko zinegotziok iaz hartutako konpromisoa berresten dugu: agintaldi berriarekin batera egingo dugun lehen ariketa ekonomiari loturikoa izango da. Ariketa transparentea eta parte-hartzailea izango da. Egoera irauli beharra dago".

### Etxebizitzaren egoera eta beharrak

Bestalde, EH Bilduk jakinarazi duenez, inbertsioen atalean "gehikuntza" bakarra proposatu dute: "Herriko etxebizitza parkearen egoera eta herritarren beharrak aztertzeke proiektua garatzea". Horren bitartez, "dimensio erreala" hartu nahi diete "herritarren transmititzen" dizkieten hainbat beharri: "Alokairuan etxe bat hartzeke edota irisgarritasun egokia duenen bat aurkitzeke zailtasun handiak daudela herrian, etxebizitza parkea zahartzen ari dela eta berririk erosteko aukerarik ez dagoela herrian, etxe-hutsen kopuru handia daukagula, baina asko ez daudela merkatura ateratzeko moduan... Datu zehatzak esku artean izateak lagunduko liguke etxebizitza politika egoki bat garatzeko datozen urteetarako".

Inbertsioekin jarraituz, gehiago ere baditu proposatzeko oposizioako koalizioak, baina "dirurik ez dagoenez, ariketa irrealia izango litzateke", diote. Hala ere, azkeen urteetatik "pendiente" dauden hainbat proiektu "desataskatu" nahiko litzateke Bilduk: "Olaldeko gunearen eraldaketa urbanistikoa zein Olabarrenako zubi berria Debabarrenako ponentziaren eskutik, "U" gaina estaltzea... ea lortzen dugun 2023an zehar berauek desataskatzea".

### Abstentzioaren arrazoiak

Azkenik, EH Bilduk esplikatu du aurrekontu-proiektuaren kontra bozkatzeko "argumentu nahikoa" izan arren, abstentitza erabaki dutela, agintaldia "modu eraikitzaile eta positiboan" nahi dutelako bukatu. Halaber, herritarrei "transmititu" nahiko liekete "egoera okerra izanagatik, Soraluez bizigarriago bat eraikitzea posible" dela (...). "Ilusioa eta herri-gogoa pizteak izan behar du guztion lehentasuna eta EHBildutik horren alde egingo dugu lan aurrerantzean ere".

## "2022KO LIKIDAZIOAREKIN AKTIBATUKO DITUGU AURREIKUSITAKO INBERTSIOAK"

UDAL GOBERNUA

## "HERRITARREN BEHARRAK ETA ETXEBIZITZA PARKEAREN EGOERA AZTERTZEKO ESKATU DUGU"

OPOSIZIOA

# eskatu euskaraz eskaini euskaraz

## Zuk aukeratzen duzu

Badakizu aukeratzen duzun hitzaren arabera izango direla zure harremanak?

*Euskadi, auzolana, bien comin*



# Soraluze, Mugituz! boluntario bila

Pandemiak eten egin zituen Soraluze, Mugituz! ekimenak antolatzen zituen jarduerak, eta orain, boluntario falta da eragozpen

2018an jaio zen Soraluze, Mugituz!, herrian kirola eta kirolzaletasuna bultzatzeko helburuarekin, batez ere, emakumeen eta gazteen artean. Ibilbide horretan, bi urtez, bi hiletik behin kirol jarduerak antolatzen zituzten, tradiziozkoak (Marraskilo Tour) zein berriak (Frontenis Txapelketa, Alejandro Rodriguez Memoriala, Hamabostero Hankabero, Iñaki Ruiz lasterketa eta San Silvestrea) tartekatuz.

Baina 2020ko martxoan dena gelditu zuen pandemiak, baita Soraluze, Mugituz! ere. Pandemia bukatu eta urte berean, Frontenis Txapelketa berreskuratu zuten eta aurten, Marraskilo Tour. Gainontzeko ekimenak, berriz, geldi daude eta hala segituko dute baldin

eta ez bada laguntzeko boluntariorik animatzen.

## Hamar bat lagun

Soraluze, Mugituz! ekimeneko Jose Lukek esan duenez, jendea prest dago puntualki laguntzeko, baina ez epe luzeagoko konpromisorik hartzeko: "Jarduera egunean, lasterketak direnean-eta, jendea etortzen da laguntzera, baina puntualki bakarrik, eta behar dena da hamar bat laguneko taldea horiek guztiak antolatzeko, urte osoan. Gu (Jokin Martinez eta biok) jarraitzeko prest gaude, baina guk biok bakarrik ezin dugu dena egin. Beste aukera bat da kirol-jarduera horiek enpresa bati enkargatzea, baina, noski, orduan, guztia ordainpekoa izango litzateke".

## Sorako bildumak arrakasta handia

Demaseko arrakasta ari da izaten Sora Futbol Taldearen kromo-bilduma. Azaroaren 27an banatu zituzten albumak eta salgai jarri zituzten kromoak eta abenduaren 10erako salduta ziren ekarritako guztiak. Eskaera horren aurrean, herriko futbol taldeak kromoen bigarren kromo sorta eskatu behar izan du eta atzera ere dendak kromoz hornituta daude eta umeak erosi eta erosi.

Izan er, e ume eta gazte mordoak erakarri ditu Sora Futbol Taldearen kromo-bildumak, baita guraso asko ere. Etxe askotan elkarrekin ahalegindu dira albuma osatzen eta di-da batean lortu dute bukatzea. Beste askok laster bukatuko dute. Lortzen duten lehen 30ek saria ere izango dute horregatik. Izango da albuma osatuko ez duenik, noski, baina benetan gutxi zango dira norberaren edo norbere seme-alaben kromoen repeak gordeko ez duenik.

## Hockeya gero eta gehiago

Ligakoak zein lagun artekoak izan, gero eta sarriago ari da Araneko frontoia hockey jardunaldien topagune bilakatzen, Marras Irristaketa Taldearen eskutik. Halako ekimenak taldeko jokalarierendako ez ezik, gurasoendako, ikusleendako zein etorkizuneko jokalarierendako pizgarri direla ezin ukatu.



## DIRULAGUNTZAK

# “Dirulaguntzak aurrezten den energia kopuruaren arabera emango dira”

Birgaitze bulegoak etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko eta etxebizitzetan energia-eraginkortasuna hobetzeko laguntzak bideratuko ditu.

### Nolako dirulaguntzak dira?

Europar Batasunak emandako NEXT Generation dirulaguntzak dira eta, kasu honetan, etxebizitzetan energia-eraginkortasuna hobetzea helburu duten jarduketak edo obrak finantzatzeko eta etxebizitza-eraikinak birgaitzeko jarduketak eta proiektuak finantzatzeko balio izango dute. Zentzu horretan, Debegesatik, Debarreneko Birgaitzeko Hirigintza Elkarteak garenaz eta Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena dugunez, laguntza hauen inguruko informazioa eman eta laguntzak bideratuko ditugu.

### Nolako baldintzak dituzte dirulaguntza hauek?

Itzulii beharrik gabeko dirulaguntzak dira eta energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduketak egiteko erabili behar dira beti. Gainera, obrei esker zenbat aurrezten den justifikatu behar da Energia Eraginkortasunaren Ziurtagiriaren bitartez. Izan ere, dirulaguntzak aurrezten den energia kontsumo kopuruaren arabera emango dira.

### Zer dira, zehazki, energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduketak?

Adibidez, eraikinaren inguratzailean egiten diren hobekuntzak. Hau da, fatxadetan eta estalkietan egiten diren lanak. Kasu horretan, obrak dira fatxada margotzea soilik mugatzen, lehen egiten zen bezala. Isolamendu-lanak egiten dira, eraikinari beroki moduko bat ipiniz eta, horrela, eraginkorragoa da energetikoki, energia gutxiago galtzen duelako. Etxebizitzetara dagokienez, bestetik, leihoen aldaketa izan daiteke jarduketa bat, adibidez.



Dagoeneko badago dirulaguntza hauek eskatzeko aukera.

### Zenbateko dirulaguntzak jaso ditzakete eskakizuna egiten dutenek?

Diru-laguntzaren zenbatekoa gehieneko ehunekoaren eta gehieneko zenbatekoaren arteko txikitasunaren arabera kalkulatu da. Gainera, egoera ekonomiko ahulean dauden pertsonak laguntza osagarriak jaso ahal izango dituzte.

### Noiz eta nola eskatu ahal izango dira dirulaguntza hauek?

Dagoeneko eskatu daitezke. Etxebizitza-komunitate batek edo partikular batek informazio behar badu, Debegesara deitu dezake (943 82 01 10) eta lgorrengatik galdetu zita hartzeko. Gainera, debegesa.eus webgunearen bitartez zita hartzeko aukera eskainiko dugu laster. Horrez gain, etxebizitza-komunitateentzat eta herritarrentzat fitxa batzuk sortu ditugu dirulaguntzen inguruko informazio zehatz eta argiarekin. Hauek ere Debegesako webgunean eskegita aurkitu ahal dira laister.

# Bueltan dira kalejirak

Bi urteren ostean, aurten, Olentzero ta Mari Domingiren eta Erregeen kalejirak egingo dira eta ondoren, opariak banatuko dituzte.

Pandemia ostean, lehen aldiz, Mari Domingi eta Olentzeroren zein Erregeen etorrerako ekitaldiak ohikoa den moduan ospatuko dituzte. Hala, zapatuan, Mari Domingi eta Olentzerok goizeko hamaiketan abiatuko dute kalejira Plaza Berritik eta ostean kiroldegiko frontoian banatuko dituzte opariak. Opariak banatu bitartean, umeek eta gaztetxoek jolasak eta margotzeko gunea izango dituzte aukeran. Horrez gain, salda eta txorizoa erosteko aukera ere eskainiko dute.

## Erregeen Kabalgata

Bi urtean etorri barik egon eta gero, aurten hiru Errege Magoak berriz etorriko dira herrira. Hala, urtarrilaren 5ean, arratsaldeko 18:00etan, erresidentziako nagusiak



Kalejira 2019an.

bisitatuko dituzte eta 19:00etan, kabalgatan aterako dira Atxuritik, zaldi gainean, ondoren elizpean opariak banatzeko. Jose Gil Beti Prest Taldeko kideak adierazi duenez, denak ere "gogotsu" daude berriz kabalgatan ateratzeko eta normaltasunez umeekin bat egiteko.

## Urte amaierako bertso saioa

BertSora bertso eskolak antolatuta, gaur, barikua, 19:00etatik aurrera urte amaierako bertso saioa egingo da antzokian. Bost bertsoari kantatuko dute: Jokin Bergarak, Josune Aramendik, Ane Labakak, Igor Elortzak eta Eneko Beretxinagak. Gaiak jartzen, berriz, Arrate Gisasola bertso eskolako kideak jardungo du.

## Eli Lakuestaren argazkiak ikusgai

Eli Lakuesta Gorosabel herriko argazkilariaren *Klik & Click* erakusketa ikusgai dago Kiroldegiko erakusketa gelan. Bertan, Lakuestak 1977 eta 1983 bitartean herritar askori ateratako karnet tamainako eta familia argazkiak ikus daitezke, ehunetik gora. Erakusketa ikusgai izango da abenduaren 31ra arte.

## 'Placencia de Soraluze' liburua

Azaroaren 29an Javier Elorza Maiztegi (Soraluze, 1953) historialariak *Placencia de Soraluze. Sorrera eta bilakaera (XIV-XVI mendeak)* liburua aurkeztu zuen Antzokia ia goraino bete zuten ehunetik gora herritarren aurrean. Liburua udaletxeko harrera bulegoan liburua eskuratu daiteke 15 euroan.





**Soraluze Motor**  
 Mug. 676 556 817 (Aste) Mendiala ind. 15  
 Tel. 943 75 21 56 Soraluze

**Txoko**  
 Eguneko menua, plater kombinatuak, hamburguenak, ogitartekoak, ogitartekoak, natiak, pizzak, gozaria...  
 Enkarguak egiten dira  
 Tel. 943 75 17 00

**ION MURGIZU BAKAIKOA PINTOREA**  
 arnuta dekoratiboa industriala  
 Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

**ELIZPE HORTZ KLINIKA**  
 Zure gemako hartz klinika, punta puntako teknologekin lan egiten dugu. Cad-Cam sistema berrituzko enbuzen dugu.  
 Elizburu, 3 behea SORALUZE  
 Tel. 943 75 25 67 e-mail: elizpe.h@gmail.com  
 Ordutegia:  
 Astelehenerik ostiralera 10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

**FOGASLER ITURGINTZA**  
 943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)  
 fogasleriturgintza@gmail.com

**IZZAGUIRRE** Igelberitza  
 Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza Erreformak • Era gurtetako Igelberitza  
 50 urteko esperientzia - 610 638 913

**Hortz klinika** Erabil 1 Tel.: 943 75 16 13  
 Javier Alonso Mediku Odontologoa K.Z. 48.000.500  
 Katala Gustinne Odontologoa K.Z. 48.001.541  
**30 urte baino gehiagoko esperientzia** odontologia, proteiak, ortodontzia, estomatopediatria, ingurmentz, estetika...  
 Zerbitzu radiologiko onakorra (3D): ekanerria, orfito eta bela.  
 Etxaburueta 6

**Armendi Jatetxea**  
 Sukalde tradizionala  
 Eguneko menua  
 Asteburuetan menu berezia  
 Karta  
 Burduntzian erretako bildotsa  
 Etxeko fritxoak  
 Soufler  
 Tel. 943 75 10 02

**KLB6**  
 Kalebarren 6 943 57 70 28  
 Mutilo eta nesken moda-gaitza  
 BSB Pepe Jarama VERO MODA ISOLID BUNICH new balance

**ARRANO** taberna  
 Etxari eta gozatu etxeko pintxoak  
 Etxaburueta 6

**Kontulan**  
 Ahoikularitza fiskala • Kontabilitatea  
 Lan-aholkularitza • Zerbitzu juridikoa  
 Ticket bai • Outsourcing • Aseguruak  
 www.kontulan.com

**TXURITXU GOZOTEGIA**  
 Astelehenerik ostiralera: 08:30-13:00 eta 16:30-20:30  
 Larunbata: 08:30-13:30  
 Igandek: 08:30-14:30  
 Gosariak, oja, perrea, pisatuk, borbotak...  
 Etxera eramateko zerbitzua  
 Tel. 943 75 24 43

**OKTELA HARATEGIA**  
 Enkarguak hartzen ditugu  
 Gertuko gaitzak  
 Etxeko tripa, txistona, salbitza eta mingaina  
 Etxaburueta 5  
 Telefonaz: 943 75 23 75

**MENDIZABAL** okindegia  
 Oja • Prentsa • Gosariak  
 Astelehenerik ostiralera: 08:00 - 13:00  
 17:00 - 20:00  
 Larunbatak eta igandek: 08:30 - 13:15  
 Kalebarren 10  
 Tel.: 943 75 13 99

**BOLIA** TABERNA  
 Pitoak, arbak, korbinak  
 Gazte-giroko festa

Bidelagun euskaltzaletasunean

## ZORION AGURRAK



**Lander Ruiz Luzuriaga Lamas**  
Abenduaren 13an 18 urte. Zorionak polit hori ! Dagoeneko 18 urte! Musu handi handi bat etxekoen partez. Maite zaitugu.



**Aetz eta Aitor Lasa**  
Abenduaren 19an eta 24an, 8 eta 68 urte. Zorionak ta laztan haundi bat etxekuon partez.



**Ihintza Garate Aizpuru**  
Abenduaren 24an 21 urte Zorionak prexioxa etxeko danon partez. Urteekin hobetuz gure neska!



**Mikel Moreira Burunza**  
Abenduaren 2an 11 urte. Zorionak Mikel! Asko maitxe zaitugu.



**Liher eta Oihan**  
Abenduaren 12an eta urtarrilaren 4an, 5 urte eta 2 urte. Zorionak etxeko politentzat! Patxo haundi bana.



**Asier eta Nagore**  
Zorionak politok! Etxekoen partetik. Muxu handi bana.



**Manex Azkorbebeitia Unamuno**  
Abenduaren 9an 7 urte. Zorionak etxeko danon partez. Segi beti bezain alai!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu:

### Internet

Plaentxia.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://plaentxia.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hilabeteko azken ostiralean aldizkarian.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@pilpilean.eus](mailto:zorionagurrak@pilpilean.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

### Hildakoak

Maria Luisa Araiztegi Irizar

### Jaiotakoak

Amir Elaissati Astigarraga



## Batzoki Jatetxea errentan

Taberna, sukaldea, terraza eta jantokia (60 plaza) ditu  
Interesdunek deitu 658 726 266

ESKELAK

I. URTEURRENA



**Maria  
Osa Oruesagasti**

2021eko abenduaren 21ean  
hil zen, 90 urte zituela.



**Jose Ramon  
Oregi Laskurain**

2021eko uztailaren 30ean hil zen, 65 urte zituela.

---

Zeruan zabiltzate, aske, hegan, gu zaintzen.  
Zerura begiratzen dugun bakoitzean zuen  
oroimenak etortzen jakuz, beti zuekin.

---

Zuen familia



**ESKELAK JARTZEKO: 699 86 87 29**  
edo [eskelak@pilpilean.eus](mailto:eskelak@pilpilean.eus)

Hil diren herritarren eskelak, orogarriak eta urteurrenak argitaratzen dira aldizkarian eta Plaentxia.eus webgunean.

Tarifak (BEZ barne):

- ▶ Arrunta: 75 € Bazkideek 60 €
- ▶ Handia: 120 € Bazkideek 96 €

**Pil-pilean eta Plaentxia.eus: irakurrienak Soraluzen.**

**DANOBATGROUP**



**Arantza  
Aguado**

**EUSKARAREN EGUNA  
ETA  
EUSKARALDIAREN  
AMAIERA OSPATZEKO  
LEHIAKETAK  
BADU IRABAZLEA!**

DANOBATGROUP / DANOBAT / GOMIK / IDEKO / LATZ / SORALUCE



**bertako** -REKIN BAI!

igogailuak | ascensores

**OROTARIKO ZERBITZUA**

**100€-tik/hileko**

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari

**GIPUZKOA**

**943 903 450**

[www.bertoko.eus](http://www.bertoko.eus)



# GOKI

erreformak



## **FATXADA BIRGAITZEAK**

**S.A.T.E.**  
FATXADA AIREZTATUAK  
BIRGAITZE TRADIZIONALA  
BALKOIEN BIRGAITZEA



## **ESTALKI ETA TEILATUAK**

ERABATEKO BIRGAITZEAK  
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK  
MANTENTZE LANAK  
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



## **BARNE ERREFORMAK**

ETXEBIZITZAK  
LOKAL KOMERTZIALAK  
BULEGO ETA ENPRESAK  
SUKALDE ETA BAINUGELAK



## **IRISGARRITASUNA**

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA  
IGOGAILU INSTALAZIOAK  
0 KOTA



## **BULEGO TEKNIKOA**

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA  
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK  
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR  
943 74 42 23

SORALUZE  
943 12 57 41

BERGARA  
943 76 53 42